



**JARRAIBIDEAK, Hezkuntza sailburuordearenak. Horien bidez, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten zaie, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduketan planak egiteko 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna)**

Gogoeta-prozesu baten ondoren, eta hezkuntza-komunitateko eragileek egindako ekarpenak kontuan hartuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Prest\_Gara Plana onartu du 2014-2017rako, unibertsitateaz kanpoko irakasleak etengabeko prestatzeko. Hainbat deialdien bitartez, Prest\_Gara Planak biltzen ditu Sailak lehenetsi dituen bost jarduera-ildoak. Honako hauek dira jarduera-ildo horiek: 1) Eleaniztasunerantz, 2) Sare\_Hezkuntza, 3) Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi, 4) "Ikasten ikasi" eta "izaten ikasi" oinarritzko kompetentzien garapena eta 5) Bikaintasunerantz, ekintzailatza eta praktika onak abiapuntu. Deialdi hau aipatutako hirugarren jarduera-ildoarekin lotzen da, "Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi" ildoarekin, hain zuzen.

Hezkuntza Sailak eskola-eredu mistotik hezkidetza-eskolaren eredura igarotzeko eraldaketa-prozesua sustatu nahi du, genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen laguntzeko. Horretarako, "Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana" egin zuen sailak, bigarren plan batean jarraituko duena. Plan horren helburuetako bat da ikastetxeek beren kulturari, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz.

Genero-indarkeria sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritutako sistema baten ondorio larriena da. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagun dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako harremanen bidezko sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta ikasle guztien garapen pertsonala bideratu behar du, nola neskena, hala mutilena.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak -Euskal Eskola Publikoari buruzkoak- 3. artikuluko 1. puntuan definitzen duenez, gure eskolak izan behar du aniztasuna, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura aldetik ingurunean errotua, partaidetzan oinarritua, desberdintasunak berdintzen dituen eta aniztasuna integratzen duena. Eta xedeen artean, hauxe ezartzen du: «*ematen den heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea*».

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- helburu hori zabaltzen du eta horretan sakontzen du; hala, 28. artikuluan hezkuntza-sistema premiatzen du hezkidetza-eredu bat gara dezan. Zehazki, honako hau adierazten du:



*«Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear.*

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak -Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak- 29. artikuluan ezartzen duenez, Hezkuntza Administrazioak hezkidetza-proiektuak sustatuko ditu, eta hezkidetza-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

Hori guztia aintzat hartuta, eta esleitutako eskumenen esparruan,

## EBATZI DUT:

### Lehena- Deialdiaren xedea

Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeen artean 50 ikastetxe publiko aukeratzea, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko jarduera-proiektu bat diseina dezaten 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako. Proiektu horrek bideratu behar die ikastetxean hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa modu global, sistematiko eta integratuan lantzea.

### Bigarrena- Banaketa: mailak eta lurraldeak

- 1- Proiektuak aukeratuko dira lurraldeen eta mailen arabera, taula honetan ezarritakoari jarraituz. Hamaika Esku programan parte hartzen duten ikastetxeei lehentasuna emango zaie:

Lurraldea	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Guztira
Araba	5	3	8
Bizkaia	15	10	25
Gipuzkoa	10	7	17
<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>20</b>	<b>50</b>

- 2- Hala eta guztiz, lurralde bakoitzaren barruan mailen araberako banaketa aldatzeko baimena ematen da, baldin eta maila baterako aukeratutako eskabideek betetzen ez badituzte aurreikusitako plaza guztiak. Halaber, plaza guztiak betetzen ez badira, bete gabeko plazen kopurua erantsiko zaio gainerako lurraldeetako maila bereko plazen kopuruari.



### Hirugarrena- Betekizunak

1.- Hautapen-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete behar ditu eskabideak:

- a) Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, antzeko deialdietan ez dutela parte hartu ziurtatuz
- b) Ikastetxeko lanpostuen zerrendako irakasleen % 70ek parte hartzeko konpromisoa.
- c) OOGk proiektua onetsi izana.
- d) Ikastetxeko OOGren erabaki hau jasotzea: proiektua aukeratuz gero, Ikastetxearen Urteko Planean eta ondoren egingo den urteko memorian sartuko da.
- e) Ikastetxeko **hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko arduraduna** identifikatu behar da. Hark horretarako baldintza egokiak bete behar ditu: langile finkoa, ikastetxea ondo ezagutzen duena, sentsibilizatuta dagoena, eta prozesua dinamizatzeko, koordinatzeko eta buru izateko gaitasunak dituena. Arduradunari emango zaio proiektuari dagokion ordu-kreditua.
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenean (OOG) **berdintasun-ordezkaria** izendatu izana.
- g) **Berdintasun-batzordea** izatea, hezkuntza-komunitate guztiko ordezkariek biltzen dituen.

2.- Jarduera-proiektu bat aurkeztea 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako.

### Laugarrena - Esleipena

1. Hautatutako ikastetxeei ondorengo ordu-kreditua emango zaie:

- Lehen Hezkuntzako proiektuentzat: **irakasle baten lanaldi erdiko ordu-kreditua** emango zaie asteen, deialdi honetan aipatutako ikasturte batean, III eranskinean azaltzen den bezala. Proiektuaren arduradunari bere eginkizunak hiru ikasturteetan zehar garatzeko aukera emango dio, berritzegunerara joateko, eta horretarako konpromisoa hartu behar du ikastetxeak.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako proiektuentzat: **3 orduko ordu-kreditua** emango zaie asteen, deialdi honetan aipatutako ikasturte bakoitzean. Ordu-kredituaren kudeaketa errazteko eta errentagarria izateko, ikastetxeak eskatu ahal izango du ordu guztiak ikasturte bakarrean metatzeko (III Eranskina). Kasu horretan, proiektuaren arduradunari bere eginkizunak 3 ikasturteetan zehar garatzeko aukera emango dio, eta horretarako konpromisoa hartu behar du ikastetxeak.

Ordu-kreditu honen kostua gutxi gorabehera 1.089.060,25 eurokoa da, hiru urteetan zehar kontutan izateko.



2. Hautatutako ikastetxeetako hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko arduradunek **eskualde-mintegietan** parte hartu eta eskualdeko Berritzegunearen zuzeneko aholkularitza jasoko dute prozesu osoan zehar.
3. Hezkuntza Sailak prestakuntza emango die hautatutako ikastetxeetako berdintasun-ordezkariei.

### **Bosgarrena - Eskabidea eta dokumentazioa**

1. Eskabideak izan behar du I. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera, honako hauek barnean hartuta:
  - i. Ikastetxearen zuzendariaren ziurtagiria: ez dutela lehenago parte hartu antzeko deialdietan, irakasleen % 70 edo gehiagok proiektua garatzeko prozesuan parte hartuko dutela adierazten duena, eta arduradunak identifikatzen dituen (hezkidetzako arduraduna, OOGko berdintasun-ordezkaria eta batzorde mistoa).
  - ii. Klaustroaren akta; bertan berariaz adieraziko da klaustroak ezagutzen duela aipatutako proiektua, eta bere gain hartzen dituela proiektuak ikastetxearen barne-antolakuntzan izan ditzakeen ondorioak, bai eta deialdiaren konpromiso eta betekizun guztiak ere.
  - iii. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren ziurtagiria, eskabidearekin ados dagoela adierazten duena, eta deialdi honen esparruan egingo den lanaren ildotik sortuko den proiektua abian jartzeko eta ikastetxearen Urteko Planean eta urteko memorian sartzeko konpromisoa hartzen duena.
2. Proiektuaren sintesia (II. eranskina), honako eduki hauek kontuan hartuta:
  - i. Justifikazioa.
  - ii. Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak (hiru ikasturteetarako).
  - iii. Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, haien arduradunak, denborak eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta (2018-2019 ikasturterako soilik).
  - iv. Ebaluazioa.
3. Aurretik aipatutako dokumentazioarekin batera III. eranskina aurkeztu beharko da: "Ordu-kreditu banaketa proposamena" behar bezala beteta eta sinatuta. Aukeratua izandako kasuan eta ahal den heinean, kontuan hartuko den ordu banaketa izango da.

### **Seigarrena.- Proiektua egiteko jarraibideak**

1. Hezkidetzako eskola, genero-indarkeria prebenituko duena, helburu hartuta, proiektuan deskribatutako dira ikastetxeak hurrengo 3 ikasturteetarako egin duen proposamena (jardueren, arduradunen, denboren eta ebaluazio-adierazleen kasuan, ikasturte



baterako soilik zehaztu behar dira). Proiektu horrek lagungarria izan behar du ikastetxeak jada egiten dituen jarduerak antolatzeke; halaber, abian jarri nahi dituen jarduerak antolatzen lagundu behar du.

2. **Justifikazioan** adieraziko dira ikastetxeak dituen arrazoiak hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, arlo horretan ikastetxeak egindako ibilbidea, eta zer-nolako premiei erantzun nahi dien.
3. Premia horiek zehatz daitezke, ikastetxeak baliatzen duen informazioa oinarri hartuta (bizikidefzaren behatokia, aniztasunari arreta emateko plana, tutore-ekintza, familien eskaerak...) eta/edo berariaz egindako diagnostikoa abiapuntutzat hartuta. Hala ere, zenbait kasutan, landuko diren eremuei buruzko diagnostiko sakonagoa izan daiteke, hain zuzen, hurrengo ikasturterako edo ikasturteetarako planteatutako jardueretako bat.
4. Garrantzizkoa da justifikatzea zergatik ematen zaien lehentasuna gai batzuei, beste batzuen aurretik, eta zer antolaketa behar den proiektua aurrera ateratzeko
5. Proiektuak definituko ditu hiru ikasturteen amaierarako lortu nahi diren **helburu orokorrak**. Helburu orokor bakoitza zehaztuko da **helburu espezifiko** batzuetan.
6. Helburu espezifiko horietako bakoitza lantzeko jarduerak proposatuko dira. Kasu honetan, 2018-2019 ikasturteko jarduerak soilik zehaztu behar dira, haien arduradunak, denborak eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta.
7. **Ebaluazioa** izango da, hain zuzen, hiru ikasturteetan egingo den **prozesua**, proiektuan aldaketak egin behar ote diren jakitea bideratuko duena. Horretarako kontuan hartuko dira jarduketako bakoitzaren ebaluazio-adierazleak. Halaber, zehaztu behar da nola ebaluatuko den proiektua bera, hiru urteen amaieran.

#### Zazpigarrena- Aurkezteko epea eta tokia

- 1- Eskaera egiteko epea 2018ko martxoaren 23an amaitzen da, egun hori ere barnean hartuta.
- 2- Eskaerak elektronikoki bidaliko dira, dagozkien eranskinekin batera, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>).
- 3- Eskaera, eranskinak eta gainerako inprimaki normalizatuak ikastetxe publikoentzako atarian "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>) argitaratuko dira.
- 4- Atari horretan deialdi honen fitxa argitaratuko da, bai eta deialdiarekin lotutako azken berriak ere. Fitxa horretan eskaera egiteko eskuliburuak eta jarraibideak egongo dira ikastetxe eskatzaileen eskura.



### Zortzigarrena- Hautaketa-batzordea

- 1) Eskakerak barematuko ditu hautaketa-batzordeak, eta hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Batzorde horretan honako kide hauek parte hartuko dute:
  - a) Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria, edo hark izendatzen duena, batzordeburu izango da.
  - b) Hezkuntza berritzatzeko lurralde-arduradunak, edo horiek eskuordetzen dituzten pertsonak.
  - c) Arduraduna eta Berritzegune Nagusiko eskola inklusiboaren alorreko kolaboratzailea (aniztasuna - generoa).
  - d) Berritzapen pedagogikorako zerbitzuko pertsona bat, idazkari-lanetan jardungo dena.
- 2) Hautapen-batzordeak ikastetxeak aukeratuko ditu, eta Hezkuntza sailburuordeari igorriko dio ebazpen-proposamena.

### Bederatzigarrena.- Ebazpena

1. Hautaketa-batzordearen proposamena aztertu ondoren, Hezkuntzako sailburuordeak aldi baterako ebazpena emango du, eta hura 2018ko maiatzaren 4ean emango da argitara Hezkuntza Sailaren web orrian.
2. Horren aurrean, ikastetxeek egoki derituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte 2018ko maiatzaren 21era arte, azken egun hori barne. Erreklamazioak, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>) aurkeztuko dira.
3. Hezkuntzako sailburuordeak behin betiko ebazpena emango du, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren. Ebazpen hori 2018ko maiatzaren 30ean argitaratuko da Hezkuntza Sailaren web orrian.

### Hamargarrena- Balioesteko eta esleitzeko irizpideak (hautaketa)

1. Hautapen-batzordeak zenbatetsiko ditu aurkeztutako eskaerak Berritzeguneko aholkularien laguntzarekin.
2. Balioespen-irizpideak

Aurkeztutako proiektuari **10 puntu** emango zaizkio, gehienez, eta onespena lortzeko 6 puntu beharko ditu, gutxienez.

- I. Ikastetxearen ibilbidea eta premien definizioa (**2,5 puntu, gehienez**). Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
  - a) Ikastetxearen ibilbidea jarduketak, programak, proiektuak, prestakuntza eta abar sustatzeari dagokionez, honako arlo hauek aintzat hartuta: hezkidetzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, genero-



indarkeria, sexu-aniztasuna, harreman afektibo eta sexualak (0,75 puntu, gehienez).

b) Premien definizioa (0,75 puntu, gehienez).

c) Lehentasunen aukeraketa eta argudioak (1 puntu, gehienez).

II. Helburu orokorrak eta helburu espezifikoak **(1,25 puntu, gehienez)**.

III. Jarduketak **(4,25 puntu, gehienez)**. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Ikasleentzako jarduerak: estereotipoak, interakzio-plana, espazioen erabilera, genero-indarkeriaren prebentzioa, heziketa afektibo eta sexuala, sexu-aniztasuna, orientazio akademikoa... (1,50 puntu, gehienez).

b) Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa proiektuetan (IHP, ICP, AJA, aniztasunari erantzuna, bizikidetza eta abar), dokumentuetan (jakinarazpenak, matrikulazioak, aktak eta abar) eta ikastetxeko komunikazio-sistemak (1 puntu, gehienez).

c) Klaustro guztiaren prestakuntza (0,75 puntu, gehienez).

d) Familien prestakuntza eta parte hartzea (0,75 puntu).

e) Eragile soziokomunitarioen prestakuntza eta parte-hartzea (0,25 puntu, gehienez).

IV. Proiektua zenbateraino datorren bat hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-planarekin, eta hezkuntza-komunitatearen inplikazioa plan hori egiteko prozesuan **(1 puntu, gehienez)**.

V. Ebaluazioa **(1 puntu, gehienez)**.

### 3. Etleipena

Etleipena bigarren jarraibidearen –banaketa-irizpideak– eta lortutako puntuazioaren arabera egingo da. 10.2 jarraibideetan jasotzen den puntuazioa minimoa lortuta, baino deialdi honetan esleitzen diren 50 plazetako bat lortu ez duten ikastetxeekin ordezkapen zerrenda bat osatuko da. Aukeratua izan den ikastetxeren batek bere plazari uko egin ezkeru, zerrenda honetako beste ikastetxe batek hartuko du honen lekua lortutako puntuazioaren arabera eta bigarren jarraibidearen –banaketa-irizpideak– kontuan hartuta.

### Hamaikagarrena – Ikastetxeen betebeharrak

1. Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-plan bat aurkeztea 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako (jardueren, arduradunen, denboren eta ebaluazio-adierazleen kasuan, 2018-2019 ikasturterako soilik zehaztu behar dira).



2. Ikasturtero, lan-plan bat eta horri dagokion memoria egin beharko ditu. Dokumentuok ikastetxearen urteko planaren eta urteko memoriaren zati izango dira, hurrenez hurren.
3. Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko ikastetxeko arduradunari aukera emango dio eskualde-mintegian eta sailak antolatuko dituen prestakuntza-jardueretan parte hartzeko.
4. Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko arduradunak Berritzeguneen eskualde-mintegietan parte hartuko du. Horietan, deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxeak elkartu eta koordinatuko dira, eta aholkuak jasoko dituzte.
5. OOGko berdintasun-arduradunak sailak emango duen prestakuntzan parte hartuko du.

#### Hamabigarrena.- Memoria – Justifikazioa

1. Deialdi honen xedea diren hiru ikasturte bakoitzaren ekainak 30a baino lehenago ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>) "Hezkidetzako – osoko jarduketaren planak – Justifikazioa" dokumentua aurkeztu beharko da.
2. "Hezkidetzako – osoko jarduketaren planak – Justifikazioa" dokumentua ikastetxe publikoentzako atarian: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak>) argitaratuko da hain denborarekin

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 1ean

Miren Maite Alonso Arana

Hezkuntza sailburuordea





## HEZKIDETZA: JARDUKETA-PLANAK / COEDUCACIÓN: PROYECTOS DE ACTUACIÓN I. ERANSKINA / ANEXO I

Kodea/Código

Ikastetxea/Centro

Udalerría/Municipio

Don/Doña

-----jaunak/andreak  
(\_\_\_\_\_. NAN zk.), ikastetxeko zuzendari eta  
Ordezkaritza Organo Gorenaren lehendakari den  
aldetik, hau

con DNI \_\_\_\_\_ en calidad de director/a y  
presidente/a del Órgano Máximo de Representación del  
centro

**ADIERAZTEN DU:**

Ezagutzen ditut Hezkuntza sailburuordearen jarraibideen baldintzak. Haien bidez, EAEko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten zaie hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduketa-planak egiteko 2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako. Horrenbestez, ordezkatzen dudan zentroak plan horietan parte hartu nahi du.

**EXPONE:**

Que, conociendo los términos de las Instrucciones de la Viceconsejera de Educación por la que se convoca a los centros públicos de Educación Primaria y Educación Secundaria de la CAPV, para solicitar la realización de planes de actuación que les permita abordar la coeducación y la prevención de la violencia de género para los cursos 2018-2019, 2019-2020 y 2020-2021, el Centro al que representa quiere participar.

**ZERA ZIURTATZEN DU:**

1) Klaustroak \_\_\_\_\_ egunean egindako bileran adierazitakoaren arabera, ikastetxeko lanpostuen zerrendako langileen % 70ek, gutxienez, esku-hartze planaren garapenean parte hartzearen alde bozkatu dute. Halaber, irakasle guztiek ezagutzen dute aurkeztutako dokumentazioa, eta beren gain hartzen dituzte horrek ikastetxearen barneko antolakuntzan izan ditzakeen ondorioak, bai eta esku-hartzeko plana, prestakuntza, jarraipena eta ebaluazioa egitearekin lotutako konpromiso guztiak ere.

2) Ordezkaritza Organo Gorenak, \_\_\_\_\_ egunean egindako bilkuran onetsi du parte hartzeko eskaera, deialdi honen esparruan garatutako proiektua abian jartzeko eta ikastetxearen urteko planetan eta urteko memoriatan sartzeko konpromisoa hartzea.

3) Nahasitako pertsonak

**CERTIFICA QUE:**

1) El Claustro en sesión celebrada el día \_\_\_\_\_ manifiesta que al menos el 70% del profesorado de la RPT del centro ha votado a favor de participar en el desarrollo del proyecto, que todo el profesorado conoce la documentación presentada y que asume las repercusiones que la misma pueda tener en la organización interna del centro, así como los compromisos referidos a la realización del plan de intervención, a la formación y al seguimiento y evaluación.

2) El Órgano Máximo de representación en sesión celebrada el día \_\_\_\_\_ da su conformidad con la solicitud de participación, adoptar el compromiso de implementar el proyecto que se desarrolle en el marco de esta convocatoria y de incluirlo en los Planes anuales y en las memorias anuales del centro.

3) Personas implicadas

Ikastetxeko hezkidetza-arduraduna	Responsable de coeducación del centro
Eskola Kontseiluko berdintasun-ordezkaría	Representante de igualdad en el Consejo Escolar
Berdintasun Batzordeko kideak hauek dira (estamentua zehaztu)	Comisión de Igualdad está formada por (especificar estamento)

\_\_\_\_\_, 2018eko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (a).  
En \_\_\_\_\_, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2018

ZUZENDARIA (sinadura eta zigilua) / LA DIRECTORA/ EL DIRECTOR (firma y sello)

**HEZKIDETZA: JARDUKETA-PLANAK / COEDUCACIÓN : PROYECTOS DE ACTUACIÓN  
II. ERANSKINA / ANEXO II****Síntesis del proyecto**

**Ikastetxea / Centro:**  
**Kodea / Código:**

**Justifikazioa / Justificación:**

**Helburu orokorrak, eta helburu orokor bakoitzari lotutako helburu espezifikoak (2018-2021 epealdia) / Objetivos generales y objetivos específicos relacionados con cada objetivo general (curso 2018-2021):**

**Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduerak, arduraduna, denborak, eta jarraipen- eta lorpen-adierazleak (2018-2019 ikasturtea) / Actuaciones ligadas a cada objetivo específico, responsable, temporalización e indicadores de seguimiento y logro (curso 2018-2019):**

**Ebaluazioa / Evaluación:**



## III. ERANSKINA /ANEXO III

## IKASTETXEA/CENTRO

**Lehen Hezkuntzako Ikastetxeentzat** 9 orduko kreditua astean izango dute. Ordu horiek hiru ikasturteetan zehar erabiliko dira. Ezin dira partitu / Los **centros de Educación Primaria** dispondrán de un crédito horario de 9 horas semanales. Dicho crédito será disfrutado en uno de los cursos del proyecto.

2018-19	2019-20	2020-21	
9 ordu/horas	0 ordu/horas	0 ordu/horas	
0 ordu/horas	9 ordu/horas	0 ordu/horas	
0 ordu/horas	0 ordu/horas	9 ordu/horas	

**Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeentzak** soilik lehentasunaren arabera, ordu kreditoa erabiltzeko aukerak ordenez idatzi / Sólo para los **centros de Educación Secundaria** marcar por orden de preferencia las diferentes opciones para disfrutar del crédito horario

2018-19	2019-20	2020-21	
3 ordu/horas	3 ordu/horas	3 ordu/horas	
9 ordu/horas	0 ordu/horas	0 ordu/horas	
0 ordu/horas	9 ordu/horas	0 ordu/horas	
0 ordu/horas	0 ordu/horas	9 ordu/horas	